Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko abuztuaren 4a, asteartea — 145 — Martes, a 4 de agosto de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZESTOAKO UDALA

Iragarkia

Zestoako Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Zestoako kirol instalazioen barne araudiari aldaketaren hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Ordenantza hori jendaurrean jarri zen 2026ko ekainaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (107 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez eta Zestoako Udalaren iragarki taulan. Aldi horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluarekin bat etorriz, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da iragarki honen eranskin gisa.

Zestoa, 2026ko uztailaren 24a.—Mikel Arregi Urrutia, alkatea. (5124)

ERANSKINA

Zestoako kirol instalazioen Barne Araudia.

ZIOEN ADIERAZPENA

Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailaren xede nagusia herritar orori jarduera fisiko eta kirola praktikatzeko aukera ahalbidetzea da.

Horretarako, Zestoako udalerrian, herritarren erabilerarako hainbat kirol instalazio daude: udal-kiroldegia, jarduera fisiko eta kirola egiteko zerbitzuak eskaintzen diren instalazioa; kiroldegiko pilotalekua, Iraetako futbol zelaia; eta, azkenik, herrian eta auzo ezberdinetako erabilera libreko pilotalekuak.

Azpiegitura horien kudeaketa udaleko Jarduera Fisiko eta Kirolaren sailaren esku dagoenez, beharrezkoa da kirol azpiegituren erabilerarako eta gozamenerako araudi erregulatzaile bat sortzea. Beharrezkoa da, bereziki, erabiltzaile guztien eskubideak eta betebeharrak bermatzeko eta Zestoako Udalak erabileraren irizpideak ezartzeko.

ATARIKO TITULUA

ARAUDIAREN XEDEA

1. artikulua.

Araudi honen xedea Zestoako udal kirol instalazioen erabilera arautzea da. Edozein pertsonak izango du instalazio horietara sartzeko aukera, baldin eta araudi honen arabera erabiltzen baditu eta Udalak hala erabakitzen duen instalazioetan, dagozkion tasa edo prezio publikoak ordaintzen baditu.

Era berean, diziplina araudia eta erabiltzaileen eskubideak eta obligazioak ere arautu nahi dira.

Oro har, araudi honek zehaztuko du udaleko kirol instalazio bakoitzaren erabilera eta sarbide eskubidea.

AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

Anuncio

El Pleno Municipal de Zestoa, en sesión celebrada el 28 de mayo de 2026, acordó aprobar inicialmente la modificación del reglamento interno de las instalaciones deportivas de Zestoa.

Dicha ordenanza pasó a exposición pública mediante anuncio publicado el 10 de junio de 2026 en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (n.º 107) y tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zestoa. En ese periodo, no se ha interpuesto reclamación alguna.

En consecuencia, y de acuerdo con el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro de la ordenanza como anexo del presente anuncio.

Zestoa, a 24 de julio de 2026.—El alcalde, Mikel Arregi Urrutia. (5124)

ANEXO

Reglamento Interno de las instalaciones deportivas de Zestoa.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El principal objetivo del Área de Actividad Física y Deporte del Ayuntamiento de Zestoa es ofrecer a toda la ciudadanía la posibilidad de practicar deporte.

Para ello, el municipio de Zestoa dispone de varias instalaciones deportivas de uso público: el polideportivo municipal, donde se prestan los servicios de actividad física y deportiva; el frontón del polideportivo; el campo de fútbol de Iraeta; y, por último, los frontones de libre uso ubicados tanto en el núcleo urbano como en los diferentes barrios del municipio.

Dado que la gestión de estas infraestructuras depende del Departamento de Actividad Física y Deporte del Ayuntamiento, resulta necesaria una normativa reguladora que garantice el uso adecuado y disfrute de las instalaciones. La creación de esta normativa es especialmente importante para asegurar los derechos y obligaciones tanto de los usuarios como del propio Ayuntamiento de Zestoa, y para establecer los criterios de uso.

TÍTULO PRELIMINAR

OBJETO DE LA NORMATIVA

Artículo 1.

El presente Reglamento tiene por objeto regular el uso de las instalaciones deportivas municipales de Zestoa. Cualquier persona podrá acceder a estas instalaciones siempre que su utilización se ajuste a lo establecido en el Reglamento. En aquellas instalaciones donde así lo determine el Ayuntamiento, se deberán abonar las tasas o precios públicos correspondientes.

Asimismo, este Reglamento regula la normativa disciplinaria y los derechos y obligaciones de las personas usuarias.

En general, se establece el régimen de uso y acceso a cada una de las instalaciones deportivas municipales.

EK\CV GAO-I-2026-05124

2. artikulua.

Zestoako Jarduera Fisiko eta Kirol sailak, araudi hau argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea bere esku gordeko du. Araudi hau eta gainerako araudi gehigarri eta bereziak (ordutegiak, prezio publikoak, eta abar) norbanako ororentzat eskuragarri egongo dira Jarduera fisiko eta Kirol saileko bulegoan eta Zestoako kiroldegiko harreran.

3. artikulua.

Kiroldegiko egutegia eta ordutegia Udalak onartuko ditu, eta urte hasieran herritar guztiei jakinaraziko zaie bere eskura dituen baliabide guztien bitartez: paper edo bide elektronikoaren bidez.

4. artikulua.

Zestoako kirol instalazioetan ez dira onartuko edozein erabiltzaile edo langileren aldetik egindako askatasun eta eskubide pertsonalen aurkako inolako jarrera ezta erasorik ere, hala nola; jarrera matxistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak, generoaukerakoak, edo LGTBI+ kolektiboko pertsonen aurkakoak.

5. artikulua.

Zestoako Udalak kirol instalazio hauek ditu bere eskumenen menpe:

1. Zestoako pilotalekua.
2. Zestoako kiroldegia.
3. Aizarnako pilotalekua.
4. Iraetako futbol zelaia.
5. Iraetako pilotalekua.
6. Arroa Goiko pilotalekua.
7. Arroa Beheko pilotalekua.
8. Lasaoko pilotalekua.
9. Gurutzeaga pilotalekua.

Araudi hau, orobat, etorkizunean egin edo eralda daitezkeen kirol instalazioetan ere aplikatuko da.

6. artikulua.

Urtero, Jarduera fisikoa eta Kirol sailak Ogasun Sailari eskainiko diren Kirol Zerbitzuen Prezio Publikoen proposamena luzatuko dio, eta Udalaren onespena derrigorrezkoa izango du prezio horiek indarrean jarri ahal izateko. Prezio publikoak onartu ondoren, Udalaren Jarduera Fisiko eta Kirol sailak hartu behar dituen neurriak hartuko ditu prezioak jakinarazi eta ezagutarazteko.

LEHENENGO TITULUA

ERABILTZAILEAK

7. artikulua. Erabiltzaile izaera.

Erabiltzaileak izango dira jarduera fisikoa edo kirola praktikatzeko arestian adieraziriko pilotalekuak, Iraeta futbol zelaia eta kiroldegiko kirol instalazioak erabiltzen dituzten norbanakoak.

8. artikulua. Erabiltzaile motak.

Mota hauek daude:

1. Abonatua.
2. Ez abonatua.
3. Ikastaroetako eta kirol kanpainetako erabiltzaileak.
4. Kirol klub edo elkarteak.
5. Ikastetxeak.
6. Eskola kirola.
7. Erabilera librea.

Artículo 2.

El Departamento de Actividad Física y Deporte del Ayuntamiento de Zestoa se reserva el derecho de aclarar, modificar o desarrollar el presente Reglamento, así como de dictar resoluciones complementarias o especiales (horarios, precios públicos, etc.). Toda esta normativa estará disponible para cualquier persona interesada tanto en la oficina del Área de Actividad Física y Deporte como en la recepción del Polideportivo de Zestoa.

Artículo 3.

El calendario y el horario del polideportivo serán aprobados por el Ayuntamiento y, a comienzos de cada año, se comunicarán a todos los vecinos a través de todos los medios a su alcance, tanto en formato papel como por vía electrónica.

Artículo 4.

No se permitirá en las instalaciones deportivas de Zestoa, por parte de ningún usuario ni trabajador, ninguna conducta que atente contra las libertades y derechos personales. Esto incluye actitudes machistas, xenófobas, racistas, homófobas, sexistas o discriminatorias hacia personas del colectivo LGTBI+.

Artículo 5.

El Ayuntamiento de Zestoa es titular de las siguientes instalaciones deportivas:

1. Frontón de Zestoa.
2. Polideportivo de Zestoa.
3. Frontón de Aizarna.
4. Campo de fútbol de Iraeta.
5. Frontón de Iraeta.
6. Frontón de Arroa Goia.
7. Frontón de Arroa Behea.
8. Frontón de Lasao.
9. Frontón de Gurutzeaga.

Este Reglamento también será de aplicación a las instalaciones deportivas que puedan crearse o transformarse en el futuro.

Artículo 6.

Anualmente, el Departamento de Actividad Física y Deporte presentará al Departamento de Hacienda una propuesta de Precios Públicos para su aprobación por parte del Ayuntamiento, siendo esta aprobación imprescindible para su entrada en vigor. Una vez aprobados los precios públicos, el Departamento de Actividad Física y Deporte adoptará las medidas necesarias para su difusión.

PRIMER TÍTULO

USUARIOS

Artículo 7. Condición de usuario.

Para la práctica de actividad física o deportiva, se considera personas usuarias a todos los individuos que utilicen los frontones, el campo de fútbol de Iraeta y las instalaciones deportivas del polideportivo.

Artículo 8. Tipos de usuarios.

Se establecen los siguientes tipos de usuarios:

1. Abonados.
2. No abonados.
3. Usuarios de cursos y campañas deportivas.
4. Clubes o agrupaciones deportivas.
5. Centros educativos.
6. Deporte escolar.
7. Uso libre.

EK\CV GAO-I-2026-05124

8. Erabiltzaileen laguntzaileak.
9. Ikusleak.

1. ATALBURUA. ABONATUA

9. artikulua.

Udal kirol instalazioetara sartzeko eta haietaz gozatzeko, Udalak tasa edo prezio publiko bat ordaindu beharra erabakitzen badu, tasa edo prezio publiko horien ordainketa eguneratuta dutenak izango dira abonatuak.

10. artikulua.

Honakoak dira Zestoako kiroldegiko abonu motak: banakakoa (16 urtetatik aurrera), gaztea (12-15 urte bitartekoa), familiarra (haurrak/ek 24 urte baino gutxiago izan behar dituzte) eta banakako berezia (65 urtetatik gorakoak eta 16-24 urte bitarteko ikasleak). Bakoitzaren onurak, ezaugarriak eta prestazioak dagokien zerga-ordenantzan arautuko dira. Beraz, kiroldegiko bazkide izateko, gutxienez, erabiltzaileek 12 urte izan behar dituzte.

Hala ere, urte bakoitzean Udalak eskumena izango du abonu mota ezberdinak sortu, aldatu edo kentzeko; baita horietako bakoitzaren prezio publikoan aldaketak egiteko ere.

11. artikulua.

Udal Jarduera Fisiko eta Kirol sailak bere esku hartzen du gizarte mailan interesgarriak diren pertsona edo kolektiboei hobariak emateko gaitasuna.

12. artikulua.

Bazkide bakoitzak identifikazio-txartel bat izango du, eta kiroldegian sartzeko beharrezkoa izango da txartela tornutik pasatzea. Hala ere, identifikazio-sistemak funtzionatzen ez badio, Nortasun Agiria edo identifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du kiroldegiko harreran sarrera baimentzeko.

13. artikulua.

Txartelaren sistema, norbanakoa eta aldaezina izango da.

14. artikulua.

Identifikatzeko, Nortasun Agiria edo antzeko agiria eskatu ahal izango du kirol instalazioetako kontrol eta zaintzako pertsonalak.

15. artikulua.

Sarrerako txartela iruzurrez erabiltzen bada, baja automatikoa emango zaio bazkideari eta dagozkion ondorioak izango ditu.

16. artikulua.

Bazkide-txartela galdutakoan, berehala jakinaraziko zaio Zestoako Udalaren Jarduera Fisiko eta Kirol sailari, eta abonu txartel berria egingo zaio, aldez aurretik horretarako ezarritako prezio publikoa ordainduta.

17. artikulua.

Bazkide izateari utzi nahi dionak, finkatutako data (abenduaren 31a) baino lehen hurrengo aldirako baja eman nahi duela berariaz adierazi beharko du Zestoako kiroldegiko harreran, posta elektroniko bidez (kiroldegia@zestoa.eus) edo telefonoz (943.147.942). Horrela egingo ez balu, hurrengo indarraldian ere abonatua izaten jarraitu nahi duela ulertuko da eta zuzenean berrituko zaio bazkidetza. Bazkide kuotaren helbideraketa pasa ondoren, 10 eguneko epea izango dute helbideraketa atzera bota eta bazkide izateari uzteko. 10 egun pasa ondoren, ez da diru itzulketarik onartuko.

Bazkidearen kuotari dagozkion, helbideraketak itzuliz gero edo ezarritako epean ordainduko ez balira, ordaindu ez dutenei, berehala, baja emango zaie.

8. Colaboradores de usuarios.
9. Espectadores.

CAPÍTULO 1. ABONADOS

Artículo 9.

Para acceder y disfrutar de las instalaciones deportivas municipales, el Ayuntamiento podrá establecer la obligación de abonar las tasas o precios públicos correspondientes. Serán considerados abonados aquellos usuarios que estén al corriente del pago de dichas tasas.

Artículo 10.

Los abonos del polideportivo de Zestoa son: individual (a partir de los 16 años), juvenil (12-15 años), familiar (menores de 24 años) y especial individual (mayores de 65 años y alumnado de 16 a 24 años). Cada uno de los beneficios, características y prestaciones se regularán en la correspondiente ordenanza fiscal. Por lo tanto, para ser socio del polideportivo, los usuarios deben tener al menos 12 años.

No obstante, cada año el Ayuntamiento será competente para crear, modificar o eliminar tipos de abono, así como las modificaciones en el precio público de cada una de ellas.

Artículo 11.

El Departamento Municipal de Actividad Física y Deporte se reserva la capacidad de aplicar bonificaciones a determinadas personas o colectivos.

Artículo 12.

Cada abonado dispondrá de una tarjeta identificativa que será necesaria para acceder al polideportivo. Esta tarjeta deberá pasarse por el torno de entrada. En caso de fallo del sistema de identificación, el usuario deberá presentar el DNI o documento identificativo similar en la recepción para autorizar el acceso.

Artículo 13.

El sistema de tarjeta será individual e intransferible.

Artículo 14.

El personal de control y vigilancia podrá solicitar el Documento Nacional de Identidad u otro documento personal similar para verificar la identidad del usuario.

Artículo 15.

En caso de uso fraudulento de la tarjeta de acceso, se procederá a la baja automática del socio, aplicándose las medidas correspondientes.

Artículo 16.

En caso de pérdida del carnet de socio, deberá notificarse de inmediato al Departamento de Actividad Física y Deporte del Ayuntamiento de Zestoa. Se confeccionará una nueva tarjeta de abono, previo pago del precio público establecido para tal fin.

Artículo 17.

Quien desee dejar de ser socio deberá manifestar expresamente su deseo de darse de baja antes de la fecha fijada (31 de diciembre). Esta comunicación deberá realizarse en la recepción del Polideportivo de Zestoa, por correo electrónico (kiroldegia@zestoa.eus) o por teléfono (943.147.942). En caso de no comunicar dicha baja, se entenderá que el usuario desea continuar como abonado durante el siguiente periodo de vigencia, y se procederá a la renovación automática del abono. Una vez domiciliada la cuota de socio, existirá un plazo de 10 días para revocar dicha domiciliación y causar baja como socio. Transcurrido ese plazo, no se admitirán reembolsos.

Si no se ha realizado el pago de la cuota en el plazo establecido, y no se ha domiciliado, la persona será dada de baja de forma inmediata como socio.

EK\CV GAO-I-2026-05124

18. artikulua.

Abonuaren prezio publikoa edo tasa banku-helbideratzearen bidez, transferentzia bidez edo banku-txartela erabiliz ordaindu ahal izango da, Zestoako Udalak adierazitako edozein banku erakundetan. Ordainketa kiroldegiko harreran egin beharko da, eta transferentzia bidez egin nahi bada, bertan galdetu beharko da kontu-zenbakia.

Bestela, Zestoako Udalak horretarako emandako kontu-zenbakian diru -sarrera egin dela ziurtatzen duen egiaztagiria erakutsi beharko da kiroldegiko harreran.

19. artikulua.

Bazkidetza uzteagatik diru-itzulketa eskariak ez dira onartuko. Jarraian azaltzen diren salbuespenetan soilik onartuko dira diru-itzulketak:

a. Kirol jarduerarik egin ezin duela adierazten duen mediku- agiria.

b. Zestoatik beste herri batera bizilekua aldatzen duela adierazten duen errolda agiria.

20. artikulua.

Udalak abonuaren diru itzulketa onartuz gero, urtea amaitzeko falta den denboraren zenbatekoaren zati proportzionala itzuliko du, gutxieneko kopurua hilabetekoa erreferentzia hartuta.

2. ATALBURUA. EZ ABONATUA

21. artikulua.

Abonatuak ez diren erabiltzaileek eguneko sarreragatik ezarritako prezio publikoa ordainduz gero, kirol instalazioetako zerbitzuak erabiltzeko aukera izango dute.

Eguneko sarrera txartel bidez ordaindu beharko da, eta erabiltzaileak egun osoan zehar izango du instalazioaz gozatzeko eskubidea. Hala ere, instalakuntzatik ateraz gero, berriz sartzeko egunero sarrera erakutsi beharko du kiroldegiko harreran.

22. artikulua.

Kiroldegian eskaintzen diren kirol-jardueretan (ikastaroak) alta emanda eta ordainketa eguneratua edukitzeak, ez du abonatu izaera emango.

23. artikulua.

Kiroldegian kontrolerako eta zaintzarako dauden langileek eskubidea izango dute instalazioetara sartzen den eta kirol instalakuntzak erabiltzen dituen pertsonaren Nortasun Agiria edo adina egiaztatzeko agiria eskatzeko.

3. ATALBURUA. IKASTAROETAKO ETA KIROL KANPAINETAKO ERABILTZAILEAK

24. artikulua.

Halakotzat joko dira Udalaren Kirol ekintzetan edo eskaintzan izena emanda duten eta ordainketa eguneratua duten pertsonak.

4. ATALBURUA. KIROL KLUBAK ETA ELKARTEAK

25. artikulua.

Zestoako Udalaren aurrean, lehiaketazko kirolaren baliozko ordezkari bakartzat hartuko direnak ondokoak izango dira: Legez eratutako Kirol Elkarteak eta aldi berean Euskal Herriko Kirol Elkarteen eta Kluben Erregistroan eta Udalaren Kirol Elkarteen eta Kluben zerrendan azaltzen direnak.

Artículo 18.

El precio público o tasa del abono podrá abonarse mediante domiciliación bancaria, transferencia o tarjeta bancaria, en cualquiera de las entidades que indique el Ayuntamiento de Zestoa. El pago deberá realizarse en la recepción del polideportivo, y si se desea hacer por transferencia, se deberá solicitar en la misma recepción el número de cuenta correspondiente.

En su defecto, si se ha realizado un ingreso en el número de cuenta asignado al efecto por el Ayuntamiento de Zestoa, deberá presentarse en la recepción del polideportivo el certificado acreditativo del pago.

Artículo 19.

No se admitirán solicitudes de reembolso por el cese voluntario de la condición de socio. Solo se aceptarán devoluciones en los siguientes casos excepcionales:

a. Presentación de un certificado médico que acredite la imposibilidad de realizar cualquier actividad deportiva.

b. Presentación de un certificado de empadronamiento por traslado de domicilio fuera de Zestoa.

Artículo 20.

En caso de que el Ayuntamiento apruebe un reembolso del abono, se devolverá la parte proporcional correspondiente al tiempo restante para finalizar el año. Como base para el cálculo se tomará como referencia mínima el importe mensual.

CAPÍTULO 2. NO ABONADO

Artículo 21.

Abonando los usuarios no abonados el precio público establecido por la entrada diaria, posteriormente podrán utilizar los servicios de las instalaciones deportivas.

La entrada de día se pagará con tarjeta, y los usuarios tendrán durante todo el día derecho a disfrutar de la instalación. No obstante, en caso de salir de la instalación, deberán mostrar diariamente la entrada en la recepción del polideportivo.

Artículo 22.

El alta y pago de las actividades deportivas (cursos) ofertadas en el polideportivo no dará la condición de abonado.

Artículo 23.

El personal de control y vigilancia que se encuentre en el polideportivo tendrá derecho a solicitar la identidad de la persona que accede a las instalaciones y utiliza las instalaciones deportivas, así como un documento acreditativo de la edad.

CAPÍTULO 3. USUARIOS DE CURSOS Y CAMPAÑAS DEPORTIVAS

Artículo 24.

Se considerarán como tales aquellas personas inscritas en la oferta o actividades deportivas municipales y personas con el pago actualizado.

CAPÍTULO 4. CLUBES Y ASOCIACIONES DEPORTIVAS

Artículo 25.

Ante el Ayuntamiento de Zestoa, como único representante válido del deporte de competición, lo serán los Clubes Deportivos legalmente constituidos y, al mismo tiempo, los Clubes Deportivos que aparezcan en el Registro de Clubes y Clubes Deportivos y en el Listado de Clubes y Agrupaciones Deportivas Municipales.

EK\CV GAO-I-2026-05124

26. artikulua.

Instalazioak erabiltzeko lehentasuna izango dute Udalarekin lankidetza-hitzarmena sinatuta duten klub edo elkarteek, gainerako erabiltzaileen aldean, betiere 25. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

27. artikulua.

Kirol elkarteetako kirolariek Zestoako Udal kirol instalazioak (Udal kiroldegia, kiroldegiko pilotalekua eta futbol zelaia) erabiltzeko aukera izango dute, aurrez Jarduera Fisiko eta Kirol sailarekin zehaztutako egun eta ordutegian.

28. artikulua.

Aurreko baldintza horiek betetzen dituzten kirol klubek eta elkarteek, beraien jarduerarako, lehiaketetarako eta entrenamenduetarako, kiroldegiko instalazioak, ekipamendua, tresnak eta espazioak erabili ahal izango dituzte; eta, Jarduera Fisiko eta Kirol sailarekin hala adostuz gero, beraien material propioa gorde ahal izango dute.

29. artikulua.

Denboraldiko ohiko entrenamenduak burutzeko eskabidea aurreko denboraldia amaitu aurretik egin beharko da. Jasotzen diren eskabide kopuruaren arabera, lagapenak antolatuko dira.

30. artikulua.

Entrenamendu eta partiden ordutegi banaketa Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol teknikariaren eta kluben artean adostuko da.

31. artikulua.

Lehiaketa-partidak jokatzeko zelaiak eta pistak eskatzen dituzten klub edo elkarte federatu guztiek Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailari beraien lehiaketa-egutegiaren kopia bat eman beharko diote.

32. artikulua.

Entrenamendurako eta lehiaketa ofizialetarako ordutegiak kirol instalazioak berak dauzkan jarduera eta ordutegietara egokitu beharko dira. Ordutegi horiek denboraldi baterako iraupena izango dute eta ez dute antzinatasun eskubiderik sortuko.

33. artikulua.

Ohiko lehiaketa ofizialetarako, kirol elkarteek, asteburuan burutu behar dituzten jardueren egutegia aste horretan idatziz aurkeztu beharko dute Jarduera Fisiko eta Kirol sailean.

34. artikulua.

Ez-ohiko entrenamendu eta/edo lehiaketa eskaerak, gutxienez, 5 eguneko epean eskatu beharko dira. Erreserba eskaera egiteko modua:

1. Webguneko formularioaren bidez egin (Zestoako Udalaren webgunea/Tramiteak/Udal instalakuntza eta materiala erreserbatzea).

2. Udal bulegoetan, paperean, eskaera orri ofiziala beteta.

35. artikulua.

Kirol klubek edo bestelako kirol elkarteek antolatutako kirol ekintzen erantzukizun zibila beraiena izango da. Horretarako, dagokion erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko dute eta berau indarrean dagoela eta nahikoa dela justifikatu. Denboraldiaren hasieran polizen kopia bat aurkeztu beharko dute Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailean.

36. artikulua.

Udalak lehentasunezkotzat jotzen dituen instalazio eta aretoak beste erabilera batzuetarako erabiltzeko baimenak eten ahal izango ditu, eta behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko die interesdunei.

Artículo 26.

Tendrán prioridad de uso de las instalaciones con la firma de un convenio de colaboración con el Ayuntamiento, en relación con los demás usuarios, en todo caso si cumplen los requisitos del artículo 25.

Artículo 27.

Instalaciones deportivas municipales de Zestoa (polideportivo municipal, instalaciones deportivas del polideportivo, frontón y campo de fútbol), con la posibilidad de acceder previamente en el día y horario que se determine con el departamento.

Artículo 28.

Los clubes y asociaciones deportivas que cumplan los requisitos anteriores podrán utilizar instalaciones, equipamiento, instrumental y espacios de entrenamiento del polideportivo. Podrán utilizar los espacios y, en caso de acuerdo con el Departamento de Actividad Física y Deporte, podrán conservar su propio material.

Artículo 29.

La solicitud para realizar los entrenamientos habituales de la temporada deberá hacerse antes de finalizar la temporada anterior. En función del número de solicitudes recibidas, se organizarán las cesiones.

Artículo 30.

El reparto horario de entrenamientos y partidos será competencia de la Técnica Municipal de Actividad Física y Deporte y se acordará entre los clubes.

Artículo 31.

Clubes o asociaciones federadas que soliciten campos y pistas para jugar partidos de competición, deberán entregar al Departamento de Actividad Física y Deporte del Ayuntamiento de Zestoa una copia de su calendario de competición.

Artículo 32.

Los horarios de entrenamiento y competiciones oficiales en las propias instalaciones deportivas deberán ajustarse a las actividades y horarios establecidos. Estos horarios tendrán una duración temporal y no devengarán derecho a antigüedad.

Artículo 33.

Para las competiciones oficiales ordinarias, las asociaciones deportivas deberán presentar por escrito el calendario de actividades de esa semana al Departamento de Actividad Física y Deporte.

Artículo 34.

Las solicitudes de entrenamiento y/o competición extraordinarias deberán realizarse con un plazo mínimo de 5 días. Forma de solicitud de reserva:

1. A través del formulario de la web (web del Ayuntamiento de Zestoa/Trámites/Instalación municipal y reserva de material).

2. En las oficinas municipales, en papel, cumplimentando el impreso oficial de solicitud.

Artículo 35.

La responsabilidad civil de actividades deportivas organizadas por clubes deportivos u otras agrupaciones deportivas será de los propios organizadores. Para ello, deberán contratar el correspondiente seguro de responsabilidad civil y justificar su vigencia y suficiencia. Al comienzo de la temporada, deberán presentar una copia de las pólizas en el Área de Actividad Física y Deporte del Ayuntamiento de Zestoa.

Artículo 36.

Las instalaciones y salas que el Ayuntamiento considere prioritarias para otros usos podrán ver suspendidas sus autorizaciones de uso, notificándose con suficiente antelación a los interesados.

EK\CV GAO-I-2026-05124

37. artikulua.

Lagatako instalazioa zazpi (7) egunez jarraian arrazoi justifikaturik gabe eta Zestoako Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailean jakinarazi gabe erabiltzen ez duten erabiltzaileei, erabiltzeko baimena kenduko zaie.

38. artikulua.

Instalazioak erabiltzean sortzen diren kalteak edo hausturak erabilera-erreserba egin zuen pertsonaren edo erakundearen ardura izango dira.

Lehiaketa ofizialetan dagokion federazioari eta klubari kalteen berri emango zaie, eta azken horiek erantzukizun subsidiarioa izango dute eragindako kalteen gainean.

39. artikulua.

Adingabeen kasuan, entrenatzaileek eta begiraleek, eta, halakorik ezean, gurasoek edo tutoreek, instalazioak erabiltzen ari diren bitartean beren kirol-taldearen jokabide ona bermatu beharko dute. Era berean, tratu txar, bullying edo jazarpen egoerak gerta ez daitezen, prebentzio neurriak hartu beharko dituzte.

Gertatzen badira, beharrezko neurri guztiak hartu beharko dituzte adingabea babesteko.

40. artikulua.

Kirol elkarte eta klubek Udalaren kirol instalazioetan publizitatea jarri nahi badute, Jarduera Fisiko eta Kirol sailari baimena eskatu beharko diote. Baimena jasoz gero, kontrakorik ez bada, ondorengo irizpideak bete beharko dituzte:

a. Publizitatea jokatzen den eremuan eta norgehiagoka ofizialak dauden garaian soilik jarri ahalko da.

b. Publizitatea ipini eta kentzeko lana elkarteek hartuko dute.

c. Publizitatea ipintzerakoan, dekorazio eta estetika arau batzuk bete beharko dira. Alkohola eta tabakoaren araua eta ikuskizun publikoarekin lotutako beste edozein arau bete beharko dira.

d. Udalak eskubidea izango du udal kirol instalakuntzetan Udalaren logoa jartzeko.

41. artikulua.

Kirol elkarte edo klub bateko edozein taldek edo norbanakok ezingo du instalazioa erabili, adineko pertsona arduradun bat bertan ez badago.

5. ATALBURUA. IKASTETXEAK

42. artikulua.

Zestoako ikastetxeek, Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute, Jarduera Fisiko eta Kirol sailarekin adostutako egun eta orduetan, instalazio ordutegiaren barruan, euren eskola orduetan, prezio publikorik ordaindu gabe eta ezarriko diren baldintzetan.

43. artikulua.

Ikastetxeko taldeak instalaziora irakasle batekin sartu beharko dira, eta irakasle horrek ikasleen ardura izango du.

44. artikulua.

Urtero, ikasturtea hasi baino lehen, Ikastetxeek hurrengo ikasturtean erabiliko dituzten instalazioak eta horietan izango duten ordutegia aurkeztu beharko dituzte.

6. ATALBURUA. ESKOLA KIROLA

45. artikulua.

Eskola kiroleko taldeek, Udalaren kirol instalazioak erabili ahal izango dituzte entrenamendu eta partidetarako, Jarduera

Artículo 37.

La instalación cedida durante siete (7) días consecutivos y no utilizada sin causa justificada ni comunicación al Departamento de Actividad Física y Deporte por parte del usuario, será motivo para que el Ayuntamiento de Zestoa retire el permiso correspondiente.

Artículo 38.

Los daños o roturas que se produzcan durante el uso de las instalaciones con reserva serán responsabilidad de la persona o entidad usuaria.

En el caso de competiciones oficiales, se notificará a la federación correspondiente, siendo el club responsable subsidiario de los daños ocasionados.

Artículo 39.

En el caso de menores, serán los entrenadores y monitores, y en su defecto los padres, quienes deberán garantizar el buen comportamiento de su equipo deportivo durante el uso de las instalaciones. Asimismo, deberán adoptar medidas preventivas para evitar situaciones de maltrato, bullying o acoso.

En caso de producirse, deberán tomar todas las medidas necesarias para la protección del menor.

Artículo 40.

Si las asociaciones y clubes deportivos quieren poner publicidad en las instalaciones deportivas municipales, deberán solicitar autorización al Departamento de Actividad Física y Deporte. Salvo autorización en contrario, deberán cumplir los siguientes criterios:

a. Sólo se podrá establecer publicidad en el ámbito donde se disputen los encuentros y durante la época en la que haya partidos oficiales.

b. La colocación y retirada de la publicidad corresponderá a las asociaciones.

c. A la hora de colocar la publicidad se deberán cumplir normas de decoración y estética. Deberán respetarse las normas sobre alcohol, tabaco y cualquier otra relacionada con el espectáculo público.

d. El Ayuntamiento tendrá derecho a colocar el logotipo del Ayuntamiento en las instalaciones deportivas municipales.

Artículo 41.

No podrá utilizar la instalación cualquier equipo o persona perteneciente a una agrupación o club deportivo en ausencia de una persona mayor responsable.

CAPÍTULO 5. CENTROS DOCENTES

Artículo 42.

Los centros escolares de Zestoa podrán utilizar las instalaciones deportivas del Ayuntamiento los días y horas acordados con el Departamento de Actividad Física y Deporte, dentro del horario lectivo, sin coste público y en las condiciones que se establezcan.

Artículo 43.

Los grupos del centro deberán acceder a la instalación acompañados de un profesor, quien asumirá la responsabilidad.

Artículo 44.

Anualmente, antes del comienzo del curso escolar, los centros deberán presentar el uso previsto de las instalaciones y su horario.

CAPÍTULO 6. DEPORTE ESCOLAR

Artículo 45.

Los equipos de deporte escolar podrán utilizar las instalaciones deportivas municipales para los entrenamientos, los

EK\CV GAO-I-2026-05124

Fisiko eta Kirol sailarekin adostutako egun eta orduetan, prezio publikorik ordaindu gabe eta zehaztutako baldintzetan.

46. artikulua.

Entrenamendu eta lehiaketako ordutegiak kirol-instalazioetako ordutegi orokorretara egokitu beharko dira.

47. artikulua.

Eskola umeen txapelketak direnean, antolatzaileek, idatziz eta garaiz, garatuko diren jardueren berri eman behar dute.

48. artikulua.

Eskola kiroleko taldeak instalaziora sartzeko, gutxienez monitore edo taldearen arduradun batekin sartuko dira, eta monitore horrek taldearen ardura izango du.

7. ATALBURUA. LIBREA

49. artikulua.

Kirol ekintzetako partaide edo kirol taldeetako kide izan gabe, ezta bazkidea ere, Udalak zehaztutako espazio eta eremuetan, prezio publikorik ordaindu gabe instalazioak erabiltzeko aukera izango dute; betiere, Zestoako Udalak baimenduta.

8. ATALBURUA. ERABILTZAILEEN LAGUNTZAILEAK

50. artikulua.

Premia berezien ondorioz, aldageletan eta kirol instalazioetan euren kabuz bakarrik ibiltzeko arazoak dituzten erabiltzaileen laguntzaileak izango dira. Laguntzaile horiek Jarduera Fisiko eta Kirol sailaren baimena izan beharko dute instalakuntzetara sartzeko.

51. artikulua.

Laguntza eskaintzeaz haratago ez dute izango instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubiderik.

52. artikulua.

Laguntzailea doan sartu ahal izango da, baina agiri egokiak eskatu ahal izango zaizkio, erabiltzailearen eta laguntzailearen arteko laguntza-harremana egiaztatzeko.

9. ATALBURUA. IKUSLEAK

53. artikulua.

Kirol ikuskizunetara eta lehiaketetara ikustera doazenak izango dira, eta Udalak zehaztutako espazio, eremu eta ordutegian, prezio publikorik ordaindu gabe sartzeko aukera izango dute.

54. artikulua.

Ikusleek instalazioak erabiltzean kalte edo hausturak sortzen badituzte, dagokion elkarte edo klubari kalteen berri emango zaio, eta azken horrek erantzukizuna izango du eragindako kalteen gainean.

BIGARREN TITULUA

ABONUAK ORDAINTZEA ETA IKASTAROETAN IZEN-EMATEA

1. ATALBURUA. ABONUAK

55. artikulua.

Prezioak kobratzea: tasak eta prezio publikoak Udalak kobratu eta administratuko ditu.

días y horas que se acuerden con el Departamento de Actividad Física y Deporte, sin coste público y en las condiciones que se determinen.

Artículo 46.

Será necesario adecuar los horarios de entrenamiento y competición a los horarios generales de las instalaciones deportivas.

Artículo 47.

Cuando se trate de torneos escolares, los organizadores deberán informar por escrito y con antelación suficiente.

Artículo 48.

Para el acceso de los equipos de deporte escolar a la instalación, deberá asistir al menos un monitor o responsable del equipo.

CAPÍTULO 7. LIBRE

Artículo 49.

Sin ser miembro de actividades deportivas, de grupos deportivos, ni socio, el Ayuntamiento podrá permitir la utilización de instalaciones sin precio público en los espacios y zonas autorizadas. Siempre con autorización del Ayuntamiento de Zestoa.

CAPÍTULO 8. ACOMPAÑANTES DE LOS USUARIOS

Artículo 50.

Las personas que circulen solas por los vestuarios e instalaciones deportivas por necesidades especiales serán consideradas colaboradores de usuarios con problemas. Estas personas colaboran en el acceso a las instalaciones y deberán contar con la autorización del Departamento de Deportes.

Artículo 51.

No podrán utilizar instalaciones y servicios más allá de la prestación de ayuda permitida.

Artículo 52.

El acompañante podrá acceder de forma gratuita, pero se le podrá requerir la documentación pertinente que acredite la relación de ayuda entre el usuario y el acompañante.

CAPÍTULO 9. ESPECTADORES

Artículo 53.

Se consideran espectadores quienes acudan a presenciar espectáculos deportivos y competiciones, pudiendo acceder al espacio, zona y horario correspondiente sin precio público.

Artículo 54.

Cuando el uso de las instalaciones por parte de los espectadores ocasione daños o roturas, se informará a la asociación o al club correspondiente de los daños ocasionados, siendo este último responsable de los perjuicios causados.

SEGUNDO TÍTULO

PAGO DE ABONOS Y MATRÍCULA EN CURSOS

CAPÍTULO 1. ABONOS

Artículo 55.

Cobro de precios: Las tasas y precios públicos serán cobrados y administrados por el Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2026-05124

56. artikulua.

Abonuak eta ikastaroetako kuotak aukeratutako motaren arabera ordainduko dira.

57. artikulua.

Ordainketa helbideratuta, transferentzia bidez edo txartel bidez egin ahal izango da.

58. artikulua.

Erabiltzaile adingabeen kasuan, prezioak ordaintzeko azken arduradunak gurasoak edo legezko tutoreak izango dira.

59. artikulua.

Bazkidetza familiarrei dagokienez, Jarduera Fisiko eta Kirol sailak errolda agiria begiratzeko eskumena izango du.

2. ATALBURUA. IKASTAROETAKO IZEN-EMATEA

60. artikulua.

Udalaren Jarduera Fisiko eta Kirol sailak, urtero, jarduera fisikoko ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu biztanleri osoa kirol praktikan jartzeko asmoz, betiere, dituen gaitasunen arabera.

61. artikulua.

Ikastaro eta kanpaina horien helburu nagusia erabiltzaileek gozatzeko aukera izatea eta norbere osasuna hobetzea da.

62. artikulua.

Denboraldi bakoitzaren hasieran ikastaroetan izena emateko fase guztien data eta ordutegiak eta izena emateko prozedurak ezarriko dira.

63. artikulua.

Ikastaroetan izena emateko prezio publikoak ordaindu beharko dira, helbideraketa bidez. Jarduera Fisiko eta Kirol sailak urtetik urtera prezio publiko horiek aldatzeko eskumena izango du.

64. artikulua.

Ikastaroen egutegi eta ordutegiak kiroldegiko egutegi eta ordutegia errespetatuko du, eta Jarduera Fisiko eta Kirol zerbitzuak adostutako egutegia izango du.

65. artikulua.

Kirol-ikastaroetan eta kirol-kanpainetan izena emanda daudenak, bazkideak ez badira, ordaindu dituzten ikastaroen ordutegietan eta aretoetan baino ezingo dira sartu. Ikastaroen ondoren dutxatzeko aukera izango dute.

66. artikulua.

Ikastaroetako bazkideak ez direnak, hasi baino 20 minutu lehenago sartu ahal izango dira, eta 30 minutu gehiago izango dituzte ikastaroa amaitzean instalazioetatik irteteko. Instalazioetara sartzean harreran adierazi beharko dute, sarbidea ireki diezaieten.

67. artikulua.

Ikastaroetan gehieneko eta gutxieneko pertsona-kopurua eskatuko da. Ezarritako gutxieneko kopurua gainditzen ez bada, Udalak ikastaroak bertan behera utzi ahal izango ditu, eta gehieneko kopurua gainditzen bada, erabiltzaile guztien artean zozketa egingo da. Kanpoan geratzen direnen artean itxaron-zerrenda bat egingo da.

68. artikulua.

Ikastaro batean parte hartzeko plaza librerik badago, edozein unetan eman ahal izango da izena. Izena ematen den unetik ikastaroa amaitu arte geratzen diren hilabeteen zati proportzionala ordaindu beharko da.

Artículo 56.

Los abonos y cuotas de los cursos se abonarán en función del tipo elegido.

Artículo 57.

El pago podrá realizarse mediante domiciliación, transferencia o tarjeta.

Artículo 58.

En el caso de usuarios menores de edad, el responsable último del pago de los precios será el progenitor o tutor legal.

Artículo 59.

En el caso de socios familiares, el Departamento de Actividad Física y Deportes revisará el certificado de empadronamiento correspondiente.

CAPÍTULO 2. INSCRIPCIÓN EN LOS CURSOS

Artículo 60.

El Área municipal de Actividad Física y Deportes impartirá anualmente cursos y campañas de actividad física con el objetivo de fomentar la práctica deportiva en toda la población, siempre que se cumplan los requisitos establecidos.

Artículo 61.

El objetivo principal de estos cursos y campañas es que los usuarios puedan disfrutar del deporte y mejorar su salud.

Artículo 62.

Las fechas y horarios de todas las fases de inscripción a los cursos, al inicio de cada temporada, se establecerán mediante procedimientos específicos.

Artículo 63.

Los precios públicos de inscripción a los cursos se abonarán preferentemente por domiciliación. El Departamento de Actividad Física y Deporte será competente para modificar anualmente dichos precios públicos.

Artículo 64.

El calendario y horario de los cursos respetará el calendario y horario del polideportivo, siendo el servicio de Actividad Física y Deporte quien coordinará y acordará dicho calendario.

Artículo 65.

Las personas no socias inscritas en cursos y campañas deportivas solo podrán acceder a los horarios y salas correspondientes a los cursos que hayan pagado. Tras finalizar el número de cursos, podrán ducharse.

Artículo 66.

Los no socios de los cursos podrán entrar 20 minutos antes del comienzo y dispondrán de 30 minutos más para salir de las instalaciones al finalizar el curso. Deberán indicar su entrada en recepción para que se les abra el acceso.

Artículo 67.

En los cursos se exigirá un número máximo y mínimo de personas. En caso de no superarse el número mínimo, el Ayuntamiento podrá suspender el curso. Si se supera el número máximo, se realizará un sorteo entre todos los usuarios y se confeccionará una lista de espera con quienes queden fuera.

Artículo 68.

Si hay plazas libres para participar en un curso, se podrá ingresar en cualquier momento, abonando la parte proporcional de los meses que resten desde la inscripción hasta la finalización del curso.

EK\CV GAO-I-2026-05124

69. artikulua.

Ikastaro baten prezio publikoa ordaintzen ez bada, ikastaro horretatik baja emango zaio erabiltzaileari. Beste jardueraren batean izena eman nahi badu, zorretan duen zenbatekoa ordaindu beharko du aldez aurretik.

70. artikulua.

Ikastaroa hasi ondoren baja eman nahi izanez gero, jarraian azaltzen diren salbuespen kasuetan izan ezik, ez da ordaindutako dirua itzuliko:

a. Ezinezkoa duela kirol jarduerarik egin adierazten duen mediku-agiria. Aldi baterako arazo medikoen kasuetan, eskatutako baja agiri horretan aipatutako egun-kopuruari aplikatuko zaio.

b. Beste pertsona batek bere lekua hartzea, eta dagokion tasa ordaintzea. Hala ere, itxaron-zerrenda egonez gero, zerrendako pertsonek izango dute lehentasuna.

c. Zestoatik beste herri batera bizilekua aldatzen duela adierazten duen errolda agiria.

71. artikulua.

Jarduera hasi aurretik erabiltzaileak baja ematea erabakitzen badu eta ordainketa eginda badu, zenbatekoa itzultzeko hiru (3) egun lehenago jakinarazi beharko du, edo, epe hori bete ezean, 70. artikuluko salbuespenetako bat betetzen duela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Azken kasu horretan, dagokion eskaera egin beharko du Jarduera Fisiko eta Kirol sailean, eta azken horrek eskaera onartu beharko du itzulketa egiteko.

72. artikulua.

Udalaren Jarduera Fisiko eta Kirol sailak, arrazoi justifikatu bat balego, ikastaro edo kanpainaren bat aldi baterako edo betiko eten dezake. Horrelakorik gertatuz gero, aurrera eramango ez den zatiari dagokion diruaren zenbatekoa itzuliko die erabiltzaileei.

73. artikulua.

Aitzitik, izena emanda dagoen jardueran parte ez hartzea erabiltzaileak erabaki badu, ez du ordaindutako dirua bueltan jasoko, 70. artikuluko salbuespen kasuetan izan ezik.

74. artikulua.

Erabiltzaileak kirol-jarduerarako gai direla ziurtatzeko, mediku-azterketa egitea gomendatzen du Zestoako Udalak, eta beharrezkoa ikusten denean, erabiltzaileei eska diezaieke kirol-jarduera ekin aurretik.

75. artikulua. Hizkuntza irizpideak.

a. Ikastaroak euskaraz eskainiko dira.

b. Ikastaroak euskara lehenetsita emango dira, eta talderen batean euskaraz ulertzen ez duten pertsonak badaude, ikasle horrek/horiek saioa jarraitu ahal izateko erraztasunak emango dira, euskararen erabilera alde batera utzi gabe.

c. Ikastaroa emango duten irakasle guztiek, gutxienez, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute, eta agiri bidez edo horretarako antolatutako proba bidez egiaztatu beharko dute.

d. Ikastaroak emateko ordezkorik etorriz gero, 3. hizkuntza eskakizuna gaindituta izan beharko du.

HIRUGARREN TITULUA

INSTALAZIOAK ERRESERBATZEKO ARAUAK

76. artikulua.

Erreserbatu eta alokatu daitezkeen instalazioak honakoak dira:

a. Kiroldegiko pilotalekua.

b. Iraetako pilotalekua.

Artículo 69.

Si no se paga el precio público de un curso, el usuario será dado de baja automáticamente. Para inscribirse en otra actividad, deberá abonar previamente el importe adeudado.

Artículo 70.

En caso de baja una vez iniciado el curso, no se devolverá el dinero abonado salvo en los siguientes casos excepcionales:

a. Certificado médico que acredite la imposibilidad temporal de realizar actividades deportivas, aplicándose el número de días indicados en dicho parte.

